



EAEn BIZITEGI BAZTERKETA LARRIA BIZI DUTEN PERTSONEN INGURUKO VI. AZTERLANA

1. AURKEZPENA

Dokumentu honetan biltzen dira urriaren 26tik 27rako gauean, kale gorrian aurkitzen ziren pertsonen zenbaketaren lehen emaitzak. Zenbaketa EAeko 23 udalerritan egin zenaldi berean. Jarduera hau “noches s” (hitza ingeleseko *shelter and street-night* delakotik hartu da) edo gaueko errolda-zenbaketak izeneko esperientzian oinarritzen da. Azken urteetan zenbaketa hauek gero eta maizago egiten dira gure inguruko hiritan. Literalki etxerik gabe dauden edoaldi baterako aterpetzetan edo beste bizileku-baliabide batzuetan lo egiten duten pertsonen zenbaketa hauek, laurogeiko hamarkadan hasi ziren egiten munduko hiri handi askotan. Oso metodologia baliagarria da, une jakin batean, pertsona hauek zenbat diren eta zein ezaugarri dituzten ezagutzeko.

EAEn honen antzeko zenbaketak 2010. urteaz geroztik egiten dira. Azterlan honen aurrekariak dira, 2010eko ekainean Bilbon, 2011ko martxoan Donostian eta 2012. urtetik aurrera bi urtean behin EAeko gero eta udalerririk gehiagotan egin izan diren zenbaketak. Aurtengo 2022ko edizioan 23 euskal udalerririk parte hartu dute; zehazki hurrengoek: Arrasate/Mondragón, Arrigorriaga, Barakaldo, Bergara, Bilbao, Donostia/San Sebastián, Durango, Eibar, Erandio, Ermua, Errearteria, Galdakao, Getxo, Irun, Laudio/Llodio, Legazpi, Leioa, Pasaia, Portugalete, Santurtzi, Sestao eta Vitoria-Gasteiz. Guztiak batera hartuta, hogeita hiru udalerririk hauetan EAeko gaur egungo biztanle guztien %66a biltzen da.

Jarduera hau *EAEn bizitegi-bazterketa larriko egoerak ikertzeko, jarraitzeko eta analizatzeko erakundeen arteko lankidetzaproto-koloaren* esparruan egin da. Protokolo hau 2016ko uztailaren 26an sinatu zuten Eusko Jaurlaritzako, hiru Foru Aldundietako, hiru hiriburuetak (Bilbo, Donostia eta Gasteiz) udaletako eta EUDEL Euskadiko Udalen Elkarte ordezkariek. Protokoloaren helburu nagusia da gizarte-bazterketa larriaren fenomenoak ikertzeko, hausnartzeko eta analizatzeko jarduerekin lotuta, elkarlanerako esparru egonkorra finkatzea.

Txosten honetan emango diren datuak urriaren 26tik 27rako gauean kalean lo egin zuten pertsonen soilik badagozkie ere, EAEn bizitegi-bazterketa larri bizi duten pertsonen inguruko azterlan zabalago baten zati dira. Azterlan hori 2023an argitaratuko da. Aurretik egindakoetan bezala, azterlan hau FEANTSAk (etxerik ez duten pertsonen lan egiten duten Elkarte Nazionalen Europako Federazioa) garatutako kontzeptu-esparruan oinarrituko da eta, zehazki, ETHOS (*European Typology of Homelessness and Housing Exclusion*) tipologian. Tipologia honen arabera kontzeptuzko 4 kategoria finkatzen dira (bizilekurik ez dutenak, etxebizitzarik ez dutenak, etxebizitza ez segurua dutenak eta etxebizitza desegokia dutenak). Eta hauen barruan, berriz, 13 kategoria operatibo daude. Kategoria horiek aldatuz doaz. Bertan, egoera desberdinetan dauden pertsonak hartzen dira kontuan; besteak beste, literalki kalean dauden eta lotarako espazio publikoak erabiltzen dituzten pertsonak edo, lotarako leku bat baduten arren, jende gehiegi dagoen etxebizitzetan bizi diren pertsonak. Hala ere, azterlan honen diseinuan egoera larrienak baino ez dira aipatuko. Horien artean daude kalean lo egiten duten pertsonak eta etxerik ez dutenei eskainitako aterpetzetan edo gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako beste baliabide batzuetan gaua ematen duten pertsonak.

Emaitzen aurrerapen honetan, beraz, lehen aipatutako EAeko 23 udalerrietan gauetz kalean egindako zenbaketa baino ez da kontuan hartuko. Dena dela, aipatu behar da, zenbaketa hori egin zen gauean, aldi berean, gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonen arreta emateko EAEn kokatutako bizilekuak dituzten zerbitzuetan eta zentroetan urriaren 26tik 27ra bitarteko gaua eman zuten pertsonak ere zenbatu zirela. Zenbaketa horiek egiteko udalen, Foru Aldundien, Eusko Jaurlaritzaren eta Gizarte-Ekintzako Hirugarren Sektoreko erakundeen laguntza izan dugu.



2. BOLUNTARIOEN PARTE-HARTZEA

Beste urte batzuetan bezala, boluntarioen parte-hartzeari esker izan da posible jarduera hori. Aurten, 680 pertsonak parte hartu dute kale-kontaktetan, eta horietatik % 65 emakumeak izan dira.

Azterlan honen edizio honek badu berezitasun bat: 23 zenbaketatik 2tan, landa-lana urriaren 26tik 27ra bitarteko gauean langile espezializatuekin bakarrik egin da (batez ere kaleko hezitzaileekin). Era berean, beste udalerrri batzuek formula konbinatu bat erabili zuten, eta zenbaketatik boluntarioek zein profesionalek parte hartu zuten. Azken hauek, irisgarritasun ezagatik edo segurtasunik ezagatik, boluntarioak normalean ibiltzen ez diren lokalizazioetara joan ziren.

Jarraian, jarduera honetan boluntario bezala parte hartu duten pertsonen banaketa udalerrriaren arabera adieraziko da.

1. taula. Kalean dauden pertsonak zenbatzen parte hartu duten boluntarioak, udalerrriaren arabera. 2022ko urriaren 26tik 27rako gaua

| | | Gizonak | Emakumeak | Guztira | |
|------------------------|-----------------|--------------------|------------|------------|----|
| Araba | Laudio/Llodio | 1 | 2 | 3 | |
| | Vitoria-Gasteiz | 3 | 9 | 12 | |
| | Guztira | 4 | 11 | 15 | |
| Bizkaia | Arrigorriaga | 0 | 2 | 2 | |
| | Barakaldo | 20 | 23 | 43 | |
| | Bilbao | 48 | 109 | 157 | |
| | Durango | 8 | 4 | 12 | |
| | Erandio | 14 | 17 | 31 | |
| | Ermua | 3 | 1 | 4 | |
| | Galdakao | 6 | 11 | 17 | |
| | Getxo | 17 | 54 | 71 | |
| | Leioa | 14 | 13 | 27 | |
| | Portugalete | 10 | 20 | 30 | |
| | Santurtzi | 2 | 8 | 10 | |
| | Sestao | 5 | 9 | 14 | |
| | Guztira | 147 | 271 | 418 | |
| | Gipuzkoa | Arrasate/Mondragón | 4 | 9 | 13 |
| | | Bergara | 7 | 20 | 27 |
| Donostia/San Sebastián | | 39 | 44 | 83 | |
| Eibar | | 3 | 8 | 11 | |
| Errenteria | | 6 | 1 | 7 | |
| Irun | | 7 | 14 | 21 | |
| Legazpi | | 9 | 11 | 20 | |
| Pasaia | | 2 | 7 | 9 | |
| Tolosa | | 9 | 47 | 56 | |
| Guztira | | 86 | 161 | 247 | |
| Guztira | | 237 | 443 | 680 | |

3. KALEAN DAUDEN PERTSONEN GAUEKO ZENBAKETAREN EMAITZAK

Kalean egindako landa-lana urriaren 26tik 27ra bitartean egin zen, gaueko 22:00etatik 2:00etara. Jarduera udalerrri bakoitzeko kaleak zeharkatzea izan zen, eta bertan lo egiten zuten pertsona guztiak zenbatzea, kanpoan, erabilera publikoko edo estalitako espazio batean edo kaletik ikus zitekeen beste edozein leku desegokitan.

Zenbaketa hori egin ahal izateko, zenbaketaren aurreko asteetan, udalerrri bakoitzeko taldeen arduradunek hainbat zeregin izan zituzten. Horien artean, honakoak azpimarra daitezke: udalerrri guztietan jarduteko jarraibide komunak ezartzeko bilera teknikoetara joatea, boluntarioak bilatzea, eta gaueko jarduna antolatzea. Halaber, eta zenbaketa egin aurretik, boluntarioei zuzendutako hainbat prestakuntza-jarduera burutu zituzten.

Urriaren 26tik 27ra doan gauean jarraitutako prozedura berdina izan zen udalerrri bakoitzean. Zenbaketa hasi baino ordubete edo bi ordu lehenago gutxi gorabehera, jardueraren talde sustatzaileek boluntario guztiak leku berean bildu zituzten. Bilera horretan, zenbaketaren inguruko oinarritzko jarraibideak gogoratu zituzten, zalantzak argitu eta datu-bilketarako hainbat material banatu zuten; tartean, kalean bizi diren pertsonen zuzenduriko galdeketa baten hainbat kopia.



Galdeketa hogeita hamar bat galderaz osatua zegoen, eta helburua kalean aurkitutako pertsonen oinarritzko ezaugarri soziodemografikoak ezagutzeko zen. Baita, pertsona hauen egoera administratiboa, osasun-egoera eta gizarte-harremanei buruzko informazioa biltzea ere. Halaber, galdeketak oinarritzko fitxa bat zeukan erantsita, behaketari buruzko oso oinarritzko datuak biltzeko. Fitxa hori kalean gaua ematen aurkitutako pertsona bakoitzeko betetzeko zen. Galdeketak, berriz, esna egonik, elkarrizketa egin nahi zuten pertsonen egitekoak ziren.

Jarraian, udalerrri bakoitzean kalean aurkitutako pertsonen banaketa jasotzen duen taula ikus daiteke, pertsona hauek aurkitu ziren udalerrriaren arabera.

2. taula. Kalean aurkitutako pertsona kopurua, udalerrriaren arabera. 2022ko urriaren 26tik 27rako gaua

| | | Aurkitutako pertsonak | | | |
|----------------|------------------------|-----------------------|-----------|---------------|------------|
| | | Gizonak | Emakumeak | Zehaztu gabe* | Guztira |
| Araba | Laudio/Llodio | 0 | 0 | 0 | 0 |
| | Vitoria-Gasteiz | 34 | 6 | 1 | 41 |
| | Guztira | 34 | 6 | 1 | 41 |
| Bizkaia | Arrigorriaga | 4 | 0 | 0 | 4 |
| | Barakaldo | 28 | 0 | 1 | 29 |
| | Bilbao | 237 | 8 | 6 | 251 |
| | Durango | 4 | 0 | 0 | 4 |
| | Erandio | 8 | 0 | 0 | 8 |
| | Ermua | 0 | 0 | 0 | 0 |
| | Galdakao | 3 | 0 | 0 | 3 |
| | Getxo | 23 | 3 | 4 | 30 |
| | Leioa | 2 | 0 | 0 | 2 |
| | Portugalete | 0 | 0 | 0 | 0 |
| | Santurtzi | 1 | 0 | 0 | 1 |
| | Sestao | 16 | 0 | 0 | 16 |
| | Guztira | 326 | 11 | 11 | 348 |
| Gipuzkoa | Arrasate/Mondragón | 0 | 0 | 0 | 0 |
| | Bergara | 4 | 0 | 0 | 4 |
| | Donostia/San Sebastián | 203 | 14 | 3 | 220 |
| | Eibar | 3 | 0 | 0 | 3 |
| | Errenteria | 13 | 1 | 0 | 14 |
| | Irun | 20 | 1 | 0 | 21 |
| | Legazpi | 0 | 0 | 0 | 0 |
| | Pasaia | 2 | 0 | 0 | 2 |
| | Tolosa | 8 | 0 | 0 | 8 |
| Guztira | 253 | 16 | 3 | 272 | |
| Guztira | 613 | 33 | 15 | 661 | |

* Pertsona hauen sexua ezin izan zen zehaztu, lo egiten zeudelako.


Aipatutako 23 udalerrietan egindako kaleko zenbaketatik, guztira, 661 pertsona aurkitu ziren. Zenbatutako pertsona guztien artean, %71,3 (471 pertsona) Donostian eta Bilbon lokalizatu ziren. Donostian 220 pertsona aurkitu ziren (guztira kalean zenbatutako 661 pertsonetatik %33,3) eta 251 Bilbon (%36,1). Bi hiri horien atzetik, Gasteiz (41 pertsona), Getxo (30 pertsona), Barakaldo (29 pertsona) eta Irun (21 pertsona) izan ziren hautemandako pertsona gehien izan zituzten udalerriak. Parte hartu zuten 23 udalerrietatik 5etan ez zen inor kalean aurkitu. Udalerrri hauek dira: Laudio, Ermua, Portugalete, Arrasate eta Legazpi.

Kalean aurkitutako pertsona guztien artean, 613 gizonezkoak ziren eta 33 emakumezkoak. Gainerakoak, 661 kasuetatik 15, sexua zehaztu ezin izan zitzaizkien pertsonen dagozkie. Oro har, kalean aurkitutako pertsonen % 5 baino ez ziren emakumeak.



Kopuru zehatza alde batera utzita, zenbaketa orokorrak ematen dituen datuak erlatibotzat hartzen badira – hau da, udalerrri bakoitzaren biztanleria-tamainaren arabera –, tasarik altuenak aurrez aipatutako bi hiriburuei dagozkie (Donostia eta Bilbo), eta atzetik datoz Sestao, Tolosa eta Getxo.

1.Grafikoa. Kalean aurkitutako pertsonen tasa 1.000 biztanleko, udalerrriaren arabera. 2022ko urriaren 26tik 27rako gaua



* Tasa kalkulatzeko INEko Errolda Jarraituko Estatistikaren 2021eko urtarrilaren 1eko populazio-datuak erabili dira.

Aurtengo datuak 2018an bildutakoekin alderatuz gero – gaueko azken zenbaketaren parekoa egin zen azken kontaketa-urtea – ikusten da gora egin duela bi urteetako edizioetan parte hartu duten 20 udalerrietatik 12tan aurkitutako pertsonen kopuruak. Kontrako noranzkoan, Leioa bakarrik nabarmendu behar da, kaleko pertsonen kopurua 6 pertsonatik 2ra jaitsi baita.

Hazkunde handiena izan duten udalerrrien artean daude Donostia (+119 pertsona), Bilbo (+37 pertsona), Gasteiz eta Getxo (bi udalerrriak, 20 pertsona gehiagorekin), Sestao (+14 pertsona) eta Errenteria (+9 pertsona). Oro har, bereziki nabarmentzekoa da Donostiaren kasua; izan ere, 2018an 101 pertsona aurkitu ziren, eta, oraingo edizioan, 220. Donostian atzemandako pertsonen hazkunde handia azaltzen da, neurri batean, handitu egin delako etxerik gabeko pertsonen kopurua hirian baina, litekeena da ere, oraingo honetan etxerik gabeko pertsonen detekzioa hobetzeko egin den ahalegin handiaren emaitza izatea. Horrela, eta aurreko urteetan ez bezala, boluntarioekin eta profesionalekin egindako landa-lanaz gain, eremu espezifikoetan zenbaketa bat egin da, irisgarritasun edo segurtasun ezagatik orain arte boluntarioak sartzen ez ziren eremuetan.



3. Koadroa. Kalean aurkitutako zenbaketaren emaitzen bilakaera udalerrriaren arabera. 2012-2022

| | | 2012 | 2014 | 2016 | 2018 | 2020* | 2022 | Diferentzia 2022-2018 |
|--------------|------------------------|------|------|------|------|-------|------|--------------------------|
| Araba | Amurrio | -- | -- | -- | 2 | 2 | -- | -- |
| | Laudio/Llodio | -- | 3 | 0 | 0 | 1 | 0 | 0 |
| | Vitoria-Gasteiz | 29 | 17 | 30 | 21 | 16 | 41 | +20 |
| | Total | 29 | 20 | 30 | 23 | 19 | 41 | |
| Bizkaia | Arrigorriaga | -- | -- | -- | -- | -- | 4 | -- |
| | Barakaldo | -- | 9 | 12 | 30 | 10 | 29 | -1 |
| | Bilbao | 148 | 141 | 112 | 214 | 68 | 251 | +37 |
| | Durango | -- | -- | 2 | -- | -- | 4 | -- |
| | Erandio | -- | -- | 3 | 3 | -- | 8 | +5 |
| | Ermua | -- | -- | -- | -- | -- | 0 | -- |
| | Galdakao | -- | -- | -- | 1 | 1 | 3 | +2 |
| | Getxo | -- | 20 | 15 | 10 | 6 | 30 | +20 |
| | Güeñes | -- | -- | 0 | 0 | -- | -- | -- |
| | Iurreta | -- | -- | 2 | -- | -- | -- | -- |
| | Leioa | -- | -- | 0 | 6 | 8 | 2 | -4 |
| | Portugalete | -- | 2 | 2 | 0 | 1 | 0 | 0 |
| | Santurtzi | -- | 3 | 5 | 1 | -- | 1 | 0 |
| | Sestao | -- | 0 | 0 | 2 | 1 | 16 | +14 |
| | Urduña/Orduña | -- | -- | 0 | 0 | -- | -- | -- |
| | Zalla | -- | -- | 2 | 0 | -- | -- | -- |
| Total | | 148 | 175 | 155 | 267 | 95 | 348 | |
| Gipuzkoa | Arrasate/Mondragón | -- | -- | -- | 1 | 2 | 0 | -1 |
| | Bergara | -- | -- | -- | 5 | -- | 4 | -1 |
| | Beasain | -- | -- | -- | -- | 0 | -- | -- |
| | Donostia/San Sebastián | 66 | 89 | 48 | 101 | 79 | 220 | +119 |
| | Eibar | -- | -- | 4 | 2 | 0 | 3 | +1 |
| | Errenteria | -- | -- | 8 | 5 | 9 | 14 | +9 |
| | Hernani | -- | -- | 0 | 1 | -- | -- | -- |
| | Irun | -- | 39 | 17 | 14 | 3 | 21 | +7 |
| | Legazpi | -- | -- | 0 | 1 | -- | 0 | -1 |
| | Oiartzun | -- | -- | -- | 6 | 4 | -- | -- |
| | Pasaia | -- | -- | 4 | 0 | 2 | 2 | +2 |
| | Tolosa | -- | -- | 3 | 4 | 0 | 8 | +4 |
| | Zarautz | -- | -- | 5 | -- | -- | -- | -- |
| | Total | | 66 | 128 | 89 | 140 | 99 | 272 |
| Total | | 243 | 323 | 274 | 430 | 213 | 661 | |
| Nº | Municipios | [3] | [10] | [24] | [26] | [19] | [23] | |

(--) Zehaztutako urtean kaleko gaueko zenbaketa egin ez duten udalerriak.

* 2020an kalean egindako zenbaketaren emaitzak ezin dira gainerako edizioetakoekin alderatu, urte horretako zenbaketa egin zeneko egoera berezia dela eta, alarma-egoeran gertatu zen etxeko konfinamenduaren ondorioz.